

KONTROL MOZIOA

Oleta-Pikabeako irisgarritasuna hobetzeko plan berezia dela eta

Ricardo Burutaran Ferrék, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko abenduaren 18an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udalaren 2020rako aurrekontuak 2019ko abenduaren 19ko udalbatzarrean onartu ziren. Udalbatzaren bilkura hartan, EH Bildu udal taldeak eskatuta, 643.03 zenbakiarekin, 70.000 euroko partida bat gehitu zen, Oleta-Pikabeako irisgarritasuna hobetzeko plan berezi bat egiteko.

2021eko maiatzeko Udalbatzaren bilkuran, EH Bilduk aurkeztutako kontrol mozio bat onartu zen. Mozio horretan, Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia definitzeko prozesuari lehenbailehen ekiteko eskatu zitzaion Udal Gobernuari, aipatutako plan berezia egitean kontuan har zitzan Berdintasun Bulegoak proposatutako konponbideak, bai eta auzokideentzako partaidetza-prozesu bat antolatzeko ere.

Egia da Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariak plan bereziaren zirriborroa aurkeztu zigula duela urtebete baino gehiago. Hala ere, harrez geroztik, Tokiko Gobernu Batzarrak oraindik ez du plan berezi hori onartu.

Plan berezia definitzeko prozesuari lehenbailehen ekitea onartu zen duela bi urte eta oraindik ere plana egin gabe dago. Hortaz, horri buruz interpelatu genuen batzordeetan Udal Gobernuak. Hirigintza Sostengagarriko zinegotzi ordezkariaren esanetan, alde batetik, plana osatzeko Mugikortasun Sailarekin lanean ari dira bertako mugikortasunari irtenbidea emateko, eta bestetik,

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Idazkaritzarekin harremanetan ari dira lurren desjabetzeak egiteko prozedura martxan jarri ahal izateko.

Lan horiek egiteko, zinegotzi ordezkariaren esanetan, hiru hilabete beharko dira, eta horiek argitutakoan egingo dute Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia.

Bertako bizilagunek urteak daramazkite horrelako plan berezi baten zain eta beraz, EH Bildutik ezinbestekoa ikusten dugu plana lehenbailehen egitea, irisgarritasunaren afera gehiago ez luzatzea, bizilagunak informaturik izatea eta horretarako guztirako konpromiso garbia azaltzea.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia lehenbailehen egin dezan, plana era jarraian egin dadin etenik gabe eta dagokion lehentasuna eman diezaion.
2. Donostiako Udaltzarak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Oleta-Pikabea auzoko irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzeko plan berezia egin aurretik bertako bizilagunekin elkartu dadin haien iritzia eta ekarpenak jasotzeko.

Donostian, 2023ko abenduaren 15ean

Ricardo Burutaran Ferré
EH BILDU udal taldeko zinegotzia